



XI. Mendi Asteari ekingo diote asteartean Asteasun

EKITALDIAK ▶ Ikus-entzunezkoak, mendi irteera, eskalada topaketa... izango dira hilaren 18a bitartean

INAGURAZIOA ▶ Ostiralean egingo dute pilotalekuko rokodromoarena; Aitor Uson eskalatzailera izango da ▶ 4

DANI ARIZALA ▶ AURKEZLEA

«Gezurra iruditu arren, nahiko lotsatia naiz»

‘Bestu gu’ saioari buruz aritu da ▶ 23

Villabona-Aiztondoko areto futbolaren egoerari buruz mintzatu da HITZA

VILLABONA ▶ Helburu ezberdinak dituzte Tintak eta Transportes Lakuntzak: neskek ondo pasatzea; mutilek, finalean egotea ▶ 6-7

HITZA



ALEGIA ▶

Gaztain jatea egin dute Intxurre Jubilatu Elkartekoek

60 lagun bildu ziren, eta elkarteko atarian erretako 6 danbolinka gaztain jan zituzten ▶ 4

Gaztain jatea egiten. HITZA



- ▶ HITZAren harpidedunen artean **GORROTXATEGI**ren eskutik **Gabonetako saski eder bat** zozketatuko dugu.



DANI ARIZALA ▶ AURKEZLEA ETA ESATARIA

«Komunikatzeko, ikasteko eta jakiteko grina hori beti izan dut»

Irratiko ahots izatetik telebistako aurpegi izatera igaro da Arizala, 'Beste gu' saioarekin. Beste Dani ezagutu nahi izan dugu

NEKANE GONZALEZ / BERRIA

Goiko harmailetatik egin digu deiar. EiT Bren Miramongo egoitzan gaude. Sahararren hizkuntzan agurtzen jakin badakien arren, 'Kaixo' esan digu. Abegikorra da oso, baina badirudi galderak egiten horiei erantzuten baino zailduagoa dagoela. Desberdin pentsatu, desberdin bizi eta desberdin maitatzen dugulako, Dani Arizalarekin aritu gara hizketan.

Ahots izatetik aurpegi izatera. Nola hartu zenuen erabakia?

Buruan neukan irradian egiten nuen saioaren antzeko bat inoiz telebistan egitea; baina amets bat zen. Beraz, ideia praktikara eramateko urratsak egin behar izan ditut. Halabeharrez gertatu zen: egitura guztia nuen buruan, lagun batzuekin hitz egin nuen, pentsatua proiektu bihurtu eta aurkeztu egin genuen.

Aurretik, gainera, zure identitate fisikoa ez erakusteko ahaleginetan ibilia zara.

Bai. Gezurra iruditu arren, nahiko lotsatia naiz. Telebistan proiektu bat aurkezteko garaian neure buruarekiko neukan borrokarik handiena horixe zen: aurpegia eman behar izatea, pertsona publiko bihurtzea eta abar. Beraz, egia da pauso hau emanda ate batzuk ixten direla, baina baita beste batzuk ireki ere. Balantza horretan jarrita, pentsatu nuen, 'ba, bai, une honetan prest nago ate hori zabaltzeko'. Beharbada duela bi edo bost urte ez, baina orain prest nengoen. Beraz, bizitzako ate bat itxi, eta beste bat zabaltzeko nuen. Nire ustez, horrelakoak egin egin behar dira; zeure buruarekin



iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Citroen Xsara 1.9 Diesel. 2001 urtekoa. Beti garajejan. Prezioa adosteko moduan.

Telefonoa: 653 740 511.

Baxua. Baxu elektrikoa salgai. Anplifikadorearekin.

Telefonoa: 620 156 555.

gustura zaudenean, behintzat, bai.

Sekula ikusterik nahi ez izatetik telebistan agertzerara, dena den, pauso handi samarra, ezta?

Ikuspegi horretatik begiratzen badiuzu bai, baina telebistan saio bat egin behar duzula soilik kontuan hartzen baduzu, ez da hain pauso handia. Dramatismoa kentzen saiatu nintzen, eta ahalik eta naturalen hartu dut. Nire inguruan ere ahalik eta naturalen eramanen saiatu naiz: hitz eginez, prestatuz... Trukean ere naturaltasuna jaso dut.

Irratiko ahotsa izateak ematen zizun xarma galdu duzu, agian. Zer irabazi?

Ez da irabazte edo galtze kontua. Bizitzan egiten dituzun urratsak dira. Pribatutasun hori galdu dut. Irabazi? Ba, jendearekin hitz egiteko aukera; jendeak sentitu, pentsatu eta bizitzen duen hori transmititzeko aukera; aipatutakoak esparru zabalago batera eramateko aukera... Beti pentsatu izan dut gure programa telebista publiko bat dela; eta, beraz, ahalik eta jende gehienarengana iristeko aukera badugu, horixe da irabazi duguna.

Telebista hizpide. Ados al zaude ET Bren politikarekin?

Ni ez naiz inor ET Bren politikarekin sartzeko. Ni oso-oso gustura nago programarekin, besterik ez. Lan taldearekin, hau da, Koldo, Jone, Itziar, Arantxa eta Oierrekin, esaterako, txoraxora eginda nago. Bestalde, izugarriko balioa ematen diet etortzen diren ezezagunei. Al-daketa hau niretzat urrats handia izan baldin bada, pentsa ezazu zer izan den alkoholiko izan den batentzat, kalean bizi den norbaitentzat, klausurako moja batentzat... kameraren aurrean jarri eta bere sentipenak kontatzea. Horiek bai balorea. Eskertzekoa da. ET Bren politikari buruz dudak iritzia galdetu didazu, ez? Nire ustez, bertako langileak dira ETB, une honetan. Horregatik, gure programako langile taldeaz eta gonbidatuez gainera, Miramonen aurkitu dudak jendea izugarria da: kameralariak, maki-lajeok, teknikariak... La-

'BESTE GU'

«Eroso sentiarazten naute lan taldeak, gonbidatuek eta langileek; aldapak gainditu daitezke hala»

KOMUNIKAZIOA

«Azken urteotan aukera gutxiago daukagu gizakiok; bakoitza bere munduan bizi da, eta hor eroso sentitzen da»

'WAZEMANK'

«Anjel oso aktore ona da eta aitortu beharra daukat nire papera goitik behera, oso ondo betetzen duela!»

guntasuna, prestasuna eta arreta nonahi. Beraz, programa hau oparitxo bat izan da niretzat.

Beste gu saioan eroso ote zauden galdetu behar nizun orain, baina...

Bai, bai. Oso oso eroso. Kontua ez da ni eroso nagoela, baizik eta lan taldeak, gonbidatuek eta etxeko langileek sentiarazten nautela eroso. Niretzat berria da kamera baten aurrean jartzea; berria da telebistaren mundu hau guztia... Baditu bere aldatpatxoak, baina horrelako lagunekin eroso gainditzuten dira aldapak, benetan!

Zer ikasi zenuen?
Irakasle ikasketak egin nituen. Orduan, ez duzu txiki-txikitako ametsa hedabideetan jardutearena, ezta?

Bai. Gaztetan, irrati zalea nintzen, eta irrati nuen etxean. Beraz, kamioi gidariek eta gainerako irrati zaleekin hitz egiten nuen etxeko logelatik, goizeko ordu txikiak arte gainera! Beraz, komunikatzeko, ikasteko eta jakiteko grina hori beti izan dut.

Eta nolatan ez zenuen, bada, kazetaritza ikasi?

Maisu izatearena ere beti oso gogoan izan dudalako. Ez dakit zergatik, baina hori egin nahi izan nuen, eta halaxe egin nuen. Ez zait, gainera, batera damutu. Orain, beharbada, zaila egingo litzaidake irakasle jardutea, baina egin behar bada, egin egiten da! Kazetaritzako ikasgaiak eta ikusita, aspergarri samarra iruditu zitzaidan, beharbada. Gainera, niri historia eta geografia asko gustatzen zaizkit. 18 urterekin gehiago betetzen ninduten irakasle ikasketek. Eta, gainera, ikasketak horiek egin, eta gero

hedabideetan jarduteko aukera izanez gero... primeran! Eta hala izan da, zorionez.

Beti erakutsi izan duzu gizar-te arazoengatik kezka. Zer dela eta?

Nire ustez, badira esparru batzuk eta lagun talde batzuk zorrionez oso aberatsak direnak, baina, zoritkarrez, ezagutzen ez ditugunak. Azken urte hauetan guztietan, gizakiok komunikatzeko aukera gutxiago daukagula iruditzen zait. Geroz eta gutxiago esaten dugu: 'Zer moduz?', 'Barkatu, eskerrik asko...' Beraz, pertsona horietako bakoitza bere munduan bizi da, bere esparrutxoak dauka eta hor eroso sentitzen da. Hori errespetagarria da oso, baina... Irratia ere aitzakia izan zen niretzat, eta mundu horietan sartzeko eta ikasteko aukera izan nuen. Telebistarekin ere gauza bera egin nahi izan dut: pertsona horiek mahai baten inguruan jarri, eta 'entzun dezagun', pentsatu.

Heriotza zigorraren aurkako idatziren bat ere sinatu izan duzu.

Bai, bai... Batzuetan, zenbait jarrerari eta iritziri begira, blokeatuta geratzen naiz; aitoritzen dut. Hori galdetu eta ez dakit zer erantzun, hain da... Eguzkia esaterako, egunero ateratzen da, eta ez diogu horri buruz geure buruari galdetzen. Ez dakit nola sartzan den buruan eta nola praktika daitekeen heriotza zigorra. Nire ustez oso-oso gogorra da. Idatzia sinatu nuen, eta berritoe ere sinatuko nuke.

Beste gu saiora pertsona bereziak, bitxiak eta nolabait esateko 'desberdinak' gonbidatzen dituzue. Zeuk erabakitzen al duzu nor eraman?

Lan talde osoa elkartzan gara, eta solas egiten dugu. Hilabetean edo bi hilabetean behin elkartu, eta 'galdera zaparrada' metodoaren bitartez, gaiak ateratzen ditugu: transplantee-na, kartzelako preso batena... Beraz, batzuetan, gaiak ateratzen dira; baina, beste batzuetan, dagoeneko ezagutzen ditugun pertsonen izenak botatzen ditugu: 'Nik halako ezagutzen dut. Oso bizitza berezia dauka, eta gauza asko kontatuzake'. Gero, mugatu egin behar dugu dena; izan ere, gaia interesgarria bada ere, batzuetan ez dugu euskaldunik topatzen; beste batzuetan ez dute hitzik egin nahi... Beraz, egoerak eta pertsonaiek jarraituko galbahea izaten dugu.

Duela gutxi guardia zibil bat izan zenuen solaskide. Bati baino gehiagori entzun izan diot probokazio hutsa dela ETBra horrelako gonbidatu bat eraman izana. Guardia zibila beste gu al da?

Joan den ikasturtean ere guardia zibil bat elkarrizketatzeko asmoa hortxe zegoen, baina ez zen egin. Aurten ere mahai gainean jarri zen gaia, eta baiezkoa eman genion. Zergatik? Gure nahia ez delako instituzio bat elkarrizketatzea, pertsonak baizik. Horregatik, euskaldun batek guardia zibil izan nahi izateagatik erabaki genuen gonbidatzea. Aldez aurretik epaiketarik ez egiten saiatzen gara, eta horregatik gonbidatu genuen bera, pertsona moduan. Euskal Herrian jaito, eta guardia zibil izatea erabaki zuelako; horregatik. Norbaitek probokazio moduan hartu badu, sentitzen dut. Gure helburua beste gu horiek elkarrizketatzea da. Gero, beraiek esaten dutenarekin bat egin edo ez, nork bere etxean egin beharreko gogoeta da.

Zer beste saio aurkeztuko zenuke gustura?

Une honetan ni *Beste gu*-rekin oso gustura nago. Beste saioaren bat aurkeztokotan... ez nizuke esango zer saio, baizik eta eduki soziala duen saioaren bat izango zela.

Txutxu-mutxuen saioak ere eduki sozialekoak omen.

Gutziz errespetagarriak dira, baina nik ez nuke horrelakorik aurkeztuko. Nire ustez, ukitu sozialak beste ukitu bat dauka.

Oker ez banago, sarri joan zara Saharara.

Ez zabilta oker, ez. Gauez *Ordu txikit*an saioa egiten nuenean, sahararrak ezagutzeko aukera izan nuen, eta geroztik haien helburu eta ametsekin bat egiteko aukera dudana bakoitzean, halaxe egiten dut. Gustukoa dut haiek erbesteratuta dauden Tindufeko lurralde horretara joatea. Hala eta guztiz ere, espero dut denbora gutxi barru Mendebaldeko Sahara izateko topaleku, eta ez errefuxiatu guinea.

Hango hizkuntzaren eta kulturaren arrastorik bai?

Hizkuntza ez dakit, agurra besterik ez. Niretzat hizkuntza eta komunikatzea oso garrantzitsua da. Askok gaztelaniaz hitz egiten dute, baina agurtzeko beraien hizkuntza erabiltzea

Nor da Dani Arizala?

Andoaingo familia bat osatzen etorri zen 1966. urtean. Baina lasai, deabruaren zenbakia 666 da, ez 66! Haurtzarotan, bere munduan egoteko joera handia omen zuen; antza, halaxe pasatzen zuen primeran. Jaunartze egunean opari ugari jasoko zituen beharbada; baina bizikleta kutun bati egin dio betiko tartea bere memorian. Irakasle ikasketak emagatik, kazetari lanetan jardun du beti. Irakasle lanean, praktiketan baino ez. Irratian egin du ibilbiderik luzeena, hain zuzen ere, *Hemen itsasertzetik, Larunbat larunbi, Ordu txikit*an, *Hi bizi haiz hi* eta *Txapela buruan* saioetan. Datorren urtean, beraz, hoge urte egingo ditu mikroari itsatsita. Kamera aurrean bere saioa aurkeztuz, berriz, aurreneko urtea du hauxe, baina dagoe-

neko maitemindu ditu ikusentzuleak. Ateak itxi eta zabalduz badabil ere, oraina bizitza gustatzen omen zaio. Beti du burua ideiez, proiektuz jantzia, baina egunaz gozatzeari atsegin du. Egindako ezer ez luke historiari desageraraziko, une txarrak ahazten ahalegintzen baita. Pribilegiatua sentitzen da, zinez. Goizean irratian dabil; arratsaldean, *Beste gu* saioarekin bueltaka. Noiz edo noiz, hala ere, irtetzen da Miramongo lau hormetatik at. Kanpoan, paseatzea eta lagunekin egotea du gustuko Dani Arizalak. Lagun zoragarriak omen ditu. Entzuten jakitea hitz egitea bezain garrantzitsua denez, belarriak erne izaten ditu beti. Gainerako aurkezleak ez bezalako dugu Dani; itsasoko olatu guztiak berdina ez direlako. ◀

DI-DA BATEAN ▶

Berdinaren diren bi olatu. Ez ditut ezagutzen.

Mikroa ala kamera. Eta zergatik ez biak?

Nork du Euskal Herriko barrerik bereziena? Ba... bi hilabeteko nire iloba txikiak.

Maria Gomez. Lankide zoragarria.

Zein da beste zu? Egunero deskubritu eta aberastu nahi izango nukeena.

Aduna. Camelot.

Zuria edo beltza? Zuri & Beltz.

gustatzen zait. Gainera, beraiek bostekoa eman eta ordu erdian aritu daitezke arrosario batean, zu agurtzen. Bestalde, jakin-minak bultzatuta galderak egiten ditut, eta tea egiten ere ikasi dut. Handik ekarritako edalontzietan atera izan diet tea lagunei.

Gu iparraldean; Sahara hegoaldean. Nola ikusten duzu herrialde garatu eta garatze bidean dauden herrialdeen arteko amildegia?

Ba, amildegi ikusten dut. Pozik nago programari esker, gainerakoek asko aberastu nautelako, eta zentzu kritikoa piztu dadelako. Beraz, errespetu hitza aldarrikatu nahi nuke. Afrikarrak eta datozenean,

onartu baino gehiago errespetatu hitza erabili beharko genuke. Arlo guztietan gainera. Izan ere, badirudi onartu goitik behera egiten dela. Asteburuan etorkin baten hitzak irakurri nituen prentsan eta honela zioen: 'Ez dugu integrazioaz hitz egin behar, bizikidetzaz baizik'. Ados nago.

Wazemank saioan ere protagonista.

Oso ondo imitatzen nau, gainera! Anjel oso aktore ona da, eta aitortu beharra daukat nire papera goitik behera betetzen duela! Errespetuz egiten diren gauza guztiak ondo daude. Zeure burua hor ikusita, pixka bat lotsatu ere egiten zara, baina...

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

IBARRA ▶ KIROLAK



Pilota txapelketako finala, 17an

J. Astibia ▶ Duela bi urte, binaka hasi baziren ere, aurtan buruz burukoa jokatzeko ari dira, 30 lagun, 4 koadroren barruan. Dagoeneko finalerdiak jokatuta, finalistak ezagun dira: hilaren 17an, 18:00etan, *Atxu* eta Unai Garmendia lehiatuko dira; 3. eta 4. lekuak ere erabakiko dituzte, *Peris* eta Haritzen artean. Ondoren afaria egingen dute eta Parabellum-en kontzertua Gaztetxean. **HITZA**

ALEGIA ▶ GIZARTEA



Txipli-txapla... gartzain jana!

J. Astibia ▶ Lehengo igandean egin zuten Alegiako Intxurre Jubila-urteko elkarteok urteroko gartzain jatea. Ez zen giro txarra horretarako, hara! Eta sasoiako aritu ziren, gainera, bertan bildu ziren 60 lagun inguru; izan ere, Lucas Lasak eta Jose Luis Lasak biek hala biek egoitzako atarian erretako 6 danbolinka jan zituzten eta. Tenorean tenoreko jakiak egoki! **PATXI RENOBALÉS**

LEITZA ▶

Aurrerak gaur eta bihar dira partidua jokatzekoak

San Inazio taldeak dituzte arerio; 26eko partidua asteartean jokatu dituzte biek

J. ASTIBIA

Aurrerako bi taldeek aste honetan jardunaldi bikoitza izanen dute, aurrekoan eguraldia zela medio jokatzeko izan ez zituzten partidua berreskuratzea egokitu baitzaie biek hala bie, eta, gainera, asteburu honi dagozkie ere jokatu beharrean dira, gazteentz gaur eta heldeuek bihar, biek San Inazio taldearen aurka.

Gaztetxoek, Taxoarren, 1. eranskinean jokatu dute, beraz, gaur, 16:15ean hasita, kasu honetan sailkapenean atzena dihoan taldearekin. Hobetzen ari dira leitzar gazteak eta itzaropenez doaz Irufe aldera. Aitatu asteartean jokatu zuten berreskurapen partiduan, Atarrabiko Beti Onak taldearen aurka 1-2 galdu zutela Arkikkilen.

Eta txanda honetan etxean jokatu duena helduen taldea da, bihar, 15:30etik aurrera eta San Inazioaren aurka; baina hau sailkapenean bigarren dago; Aurrera hiru garren, 20 punturekin. Beraz, bi taldeen artean lehia bizibizia iragarrita dago, ikusteke partidua polita izan daitekeelarik. Zentzu horretan, eta zalegoa erakartzeko asmoz, gainera, biharkoan «zoketa berezia» egingen dutela iragarri dute taldeko arduradunek: hain zuzen ere, «saski eder bat» zoketatuko dute, zehaztu zutenaz.

Asteartean Altsasuren aurkakoa jokatzetik, pozik asko etorriak dira, 0-2 irabazi baitzuten leitzarrek.

ASTEASU ▶ KIROLAK

Etzi Mendi Asteari ekinen diote Asteasun

XI. aldiz, ikusi eta ikasteko ez ezik, praktikatzeko aukera ere

JAIONE ASTIBIA

Askok mendira joateko baliatuko zuten bukatzea doan aste berezi samar hau. Baina oraindik ere zaletasun horri goxatua ematen jarraitzeko aukera bada: Asteasun, astelehenean ha-

sita egingen duten XI. Mendi Astea.

Hilaren 12an hasi eta egun batean bai eta bestean ez, askotariko ikuskizun eta ekintzak antolatuta dituzte: astelehenean bertan, Josune Bereziartu eskalatzaile bikainak *Bloketik*

Naranjora ikus-entzunezkoa eskainiko du zine aretoan 19:30ean; bi egunetara, asteazkenean, beraz, leku eta tenore berean, Miguel Mari Eloseg, hartzen zaletu eta jarraitzaile den biologoaren eskutik *Akabo Pirinotako hartzak* emanaldia izanen da ikusgai.

Eta ikusi, entzun, ikasi... egitetik, ekintzara igaroz, asteburua hurbildu ahala, mendi kirolak egiteko aukera izanen da. Horrela, ostiralean, 18:30ean pilotalekuko rokodromoaren inaugurazioa egingen dute, Aitor

Uson eskalatzailea bertan dela. Kirolari honek «segurtasunari buruzko informazioa» helaraziko die bertaraten direnei eta eskalada erakustaldia ere egingen du.

Aitzondon topaketa

Eta ondoren, aurreneko aldiz, Aitzondoko I. Eskalada Topaketa egingen dute han bertan.

Eta hilaren 17 eta 18rako, Pirinotara irteera antolatuta dute. Garraioa «bakoitzak bere alde» eginez, «mendia, iraupen eskia, pistakoa» egiteko aukera izanen dute joanen dinerek eta «afaria, loa eta gosaria», Piedrafita de Jacako aterpean egingen omen dituzte. Honetara joateko, hilaren 14a baino lehen eman behar omen da izena liburutegian. Jakitera eman dutenez, «asteasurantzat dohainik» izanen delarik irteera.

ABENDUAK 10
NAZIOTASUN ESKUBIDEaren eguna
Euzko Herriko naziotasun aformena tramitatzeko aukera EH osan,
Euzko Leizola eratu eta hiru arloko beharrezkoak dira.
Nazio eskubideak errespetatzeko eskakizun ofiziala.
Nazio Batuen Erakundearen nazio eskubidearen 1948ko Deklarazioaren oinarriak.

Biharko egunean, zure mailegua Euskadiko Kutxan* eskatzen baduzu...

Etxebizitza Kontua | EUSKADIKO KUTXA

- +%0,45eko interesak Etxebizitza Kontuan
Interesen prima Etxebizitza Kontuko batez besteko saldoarekin kalkulatzen da iraualdi osoan zehar. Interes-primaren ordainketa bakarria egingo da Etxebizitza Kontu bakoitzeko.
- %50eko beherapena Etxe Aseguruan
Lehenengo urteko primaren gain (gehienez 50euro).
- %25eko beherapena Bizitza Aseguruan
Lehenengo urteko primaren gain (gehienez 25euro).

*Abantailak 1etik 7 urtera bitarteko antzintzasuna dute Etxebizitza Kontuko titularrentzat, 12.000 euroko gutxieneko saltoa baldin badute, ohiko etxebizitza erosteko mailegua Euskadiko Kutxarekin kontratatzen badute eta 35 urtetik gorakoak ez baldin badira.

Zurekin elkarlanean
CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisu-txostuarekin Larremendi kalean 112m2. Bista zoragarria.
Salgai (Tolosa). Pisu-txostuarekin. Bista zoragarria, sartzeko moduan.
Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate bidean.
Salgai (Ibarra). Pisu San Inazio auzoan, Guztin berria, 244.000 euro.
Salgai (Tolosa). Pisu San Frantziskoen, 126m2, Garajearekin.
Salgai (Tolosaldea). Garajeak leku ezberdinetan: Ibarra, Batxil Zaldibia kalean, Plaza zaharra...
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertzialak Errementari kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajea Pedro de Tolosa kalean, Araba Etorbidean...
943 65 17 13 / 677 46 09 16

GUTUN@K ▶

Egoera
'kaotikoa'

Legealdi honen erdira iritsita Uzta plataformak balorazioa egiten du egun udalean dagoen korporazioak egindako lanaren inguruan. Uztaren ustetan gaur egungo egoera hitz batean laburtu daiteke: kaotikoa.

Eraginkorra ez den gestioa, proiektu eta ideia falta, zerbitzuen pribatizazioa eta garestitzea, tasa eta zergen itxuragabeko igoerak, esleipenaren irregulartasunak, berandu bidalitako eta irteerarik gabeko tramitazioak... baieztapen hauek guztiak bi urte hauetan egindako gestioa azaltzen dute.

Euskara egungo udalean erabat baztertua dago politikoen utzikieratik, alkatesa buru dutela. Euskararen erabilera arautzen duten udal ordenantzak kaxoi batean alderatuak eta praktikan jarri gabe. Eskualdeko plan estrategikoa, batek daki! Udaleko barne komunikazioe-

tan euskararen erabilera oso eskasa da politikoen ezjakintasun eta gogo faltagatik.

Onartutako aurrekontuaren ekuzioa tamalgarrria izan da; urrian onartutako aurrekontuaren %50a besterik ez da eraman da aurrera. Inbertsioetan planifikazio ezak 800.000 euro inguru erabili gabe izatea ondorioztatu du. San Nazio urbanizatzea aurrekontuan sartu den hirugarren urtea da; 515.000 euro Emeterio Arreseren urbanizazioarako eta oraindik tramitazio fasean dago; 154.000 euro adinekoentzat eguneko zentroa egiteko eta oraindik lursailen jabeekin ez dago hitzarmenik; 137.000 euro Azkuen etxebizitzak erosteko eta oraindik ez dira erabili. Aurrekontuetan 500.000 euroko soberakina izanda ere bigarren urtez, ez da euro bat ere bideratu nekazaritza eta abeltzaintzako esplotaziak indartzera.

Honi guztiari Apatzarreka zona industrialak ezustean sortu dituen 1.200.00 euro eransten badizkiogu

ondorio garbi batera iristen gara: herri honek une honetan erabili gabeko bi miloi euro baino gehiago ditu.

Zerbitzuen pribatizazioak ondorio modura berauen erabilpena garestitzea eragin du baina ez hauen kalitate hobetzea. Udaleko ur zerbitzuen pribatizazioak, hilerriaren gestioa eta partzialki kiroldegiko zerbitzuak ibararren boltsikoentzat eta udaleko diru-kutxarentzat oso kaltegarriak izan dira. Pribatizazio honek lan kontratuen kalitatean zuzenean eragin du, lehen udalak kontratatzen zituenak eta mugaga-beak zirenak orain esku pribatuera pasa eta lan baldintza txarretan lan eginez aldi bateko lan kontratuak izatera pasa baitira.

Bestalde, Uztak behin eta berriz eskatu du bi urte hauetan batzorde informatiboetako ordutegiak aldatzeko gure partehartzea ahalbidetzeko. Batzorde informatibo hauek gehienetan ez dira egiten eta egiten direnetan batzordeko lehendakariak soilik parte hartzen du. Gobernu batzordeei zein batzorde informatiboek jarraipen bat eginez gero partehartzea oso eskasa da, bertan tratatzen diren gaien garrantzia kontutan izanik erabakiak 2, 3 edo gehienez 4 pertsonen artean hartzen dira. Guk eskatutako ordutegi aldaketa beraien aukeren arabera ez bada nola uler daiteke beraiek jarritako batzordeetara ere ez joatea? Euskara batzordea 10:00etan, obra eta zerbitzuak 12:00etan, ogasuna eta pertsonala 13:00etan, hirigintza batzordea 17:30tan... Honetaz gain, Udalean landu beharreko gaien inguruko informazioa nahi dugula eskatu dugu askotan, baina informazio gutxi eta normalean beranduegi iristen zaigu.

Arau subsidiarioetan egindako aldaketak espekulazioarekin lotuta daude, eta herritarrei gai hau aurkezteko orduan erabili diren formak eta mania onartezinak dira. Dimittitu duten zinegotziak ere izan dira bar-

ne arazoak direla medio; azken finean erabateko kaosa.

Baino ez da guztia negatiboa izan bi urte hauetan, leku askotako oztopo arkitektonikoak kentzeaz gain barandilak beharrezkoak diren toki guztietan jarri baitira. Auzoen politikarekin ere jarraitzen da eta zakarrak ere lur azpiko edukiontzietan jarri dira.

Hori bai, herrian jarri diren barandilak orain arteko korporazioek erabateko onarpenarekin hartutako udal akordio bat saltauz jarri dira. Akordio honen arabera eskualdeko ekonomiarik garrantzitsua eta beti ere legearen barruan Udalak eskualdeko enpresei eskatu behar dizkie aurrekontuak, aztertu eta lehendik aurreikusitako beharrei gehien egokitzen den proposamenari esleitzen zaio. Nola egin da barandila hauen esleipena? Akordio hau non gelditu da? Zergatik ez da kriterio hau errespetatu?

MARI JOSE RUIZ, MIKEL IGLESIAS
(UZTA PLATAFORMA) ▶ IBARRA

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Genero indarkeria hizpide

Berdintasunerako zerbitzuak hainbat hitzaldi antolatu ditu hilaren 16a arte

IÑIGO TERRADILLOS

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuak antolaturiko ekitaldiek aurrera darraite.

Hala, asteartean, hilaren 13an, 15:00etan Haur eta Gazte Liburutegian (Errota) *Hezkidetzaren bidea, indarkeria prebenitzeko gako* hitzaldia izango da Amparo Tome soziologoaren eskutik. Haurtzaindegi zerbitzua ere izango da, aurrez eskatuta 943 69 74 60 zenbakian, edo e-mail bidez gizarte-

zerbitzuak@tolosakoudala.net helbidean.

Bestalde, hilaren 14an 09:30etik 13:00etara Haur eta Gazte Liburutegian (Errota) Amparo Tome soziologoa tratu txarrak eta eskolaren inguruan ariko da, eta Emakundeko ordezkariak ere izango dira *Nahikoren* —tratu txarrak prebenitzeko egitasmoa— inguruan jarduteko. Azkenik, hilaren 16an indarkeriaren arazoari aurre egiteko administrazioak duen zereginari buruz jardungo dute; Reina Ruiz Bobesek jardungo du, 10:00etan, Errotan.

TOLOSA ▶

Gaztetxoan heziketari buruzko hitzaldia

Hilaren 13an, 18:30ean, Hirukide Jesuitinak Ikastetxeko 3. solairuan inteligentzia emozionalari buruzko hitzaldia izango da. Marielo Espina sikologoak eskainiko du, eta gaztetxoaren heziketan eman beharreko pausu zehatzen edo konkretuen inguruan ariko da.

GAZTELU ▶ GIZARTEA

Kontzejua zabalik hilaren 16an

Gazteluko Udaletik jakinarazi dute kontzejuan kokatutako ostua datorren abenduaren 16tik aurrera irekita egongo dela.

GIZARTEA ▶

Euskal Selektzio Nazionala helburu

Euskal Selektzio Nazionalak eta Euskal Herriko Federazio Nazionalak izate aldera, sinadura bilketa egiten ari da ESAIT. Hori dela-eta hilaren 14an 19:30ean Tolosako udaletxean Tolosaldean jaso diren sinaduren balantzea egingo dute. Halaber, kanpainan honen barruan, gaur 18:00etan Usabalen izango den Laskorain-Gernika partidaren atarian, bi taldeetako kirolariak euren babesa erakutsiko diote ESAITen ekimenari.

IBARRA ▶ KIROLAK

Xota B-ren aurka gaur Ibarrek

Gaur 16:00etan Ibarra areto futbol taldeak Irurtzunen jokatu du Xota B taldearen aurka. Etxetik kanpo jokatu dute baita ere jubenilek, Berriotxoaren aurka, 17:30ean.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

II. Eskalada Txapelketa Bonberenean

Atzokoan Bonberenean atera berri duen Txaranga diskoa Tolosako kaleetan aurkeztu zuen, eta gaur, berriz, 16:30ean Bonberenea II. Eskalada Txapelketa egingo dute Bonbereneako rokodromoan. Gauean, musikaren txanda izango da, 22:30ean Berri Txarrek taldearekin Bonberenean bertan.

TOLOSA ▶

Loiolara irteera antolatu du Atsedanak

Atsedena taldeak Loiolara irteera antolatu du 7-11 urte bitarteko gazteentzat hilaren 26, 27 eta 28an. Santa Mariako parroki etxean arratsaldean eman behar da izena hilaren 13a baino lehen.

iragarki laburrak ▶

Aireportuak. Bezero arretarako lanpostuak betetzeko premia. Informa zaituzte: 943 31 37 82.
Haur eskola publikoak. Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia, astelehenetik ostiralera. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaituzte 943 31 37 82.
Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoeta. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakian.
Harreragileak. Harreragile-

telefonista. Udalekxeetarako plaza libreak. Informa zaituzte: 943 31 37 82.
Sukaldari laguntzailea. Sukaldari laguntzailea, sukaldariak, zerbitzariak. Hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. Informa zaituzte. 943 31 37 82.



Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

VILLABONA ▶ ARETO FUTBOLA

Bi talde, ilusio bera

Tinta, neskena, eta Transportes Lakuntza, gizonezkoena, dira Villabonako areto futboleko bi taldeak; beraien historiaz eta egungo egoeraz aritu dira HITZArekin

JULEN GOIKOETXEA



Tinta Villabona. Taldeko kide guztiak, Olaederra kiroldegian, partida bat jokatzeko hasi aurretik. HITZA

MIKEL ELIZEGI ▶ TINTA ARETO FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEA

«Gure helburua, kirola eginez ahalik eta ondoen pasatzea da»

J. Goikoetxea ▶ Taldea federatu zenetik dago entrenatzaile moduan Mikel Elizegi. Bere ustez, goi mailako taldeak, Hegoalde kasu, beste mundu batean aurkitzen dira.

Zer moduz hasi duzue 2005/2006 denboraldi hau?

Denboraldi hasiera jada igarota, orain arteko balantzea ona da. Iazko taldearekin alderatuta jendeak alde egin du eta jokalaririk berriak etorri dira, eta hori kontutan hartuz, baikor gaude egiten ari garen urtearekin.

Zenbat kide zarete taldean, eta zein mailatan zaudete?

Aurtengo denboraldiari begira, hamar jokalariz osaturiko taldea dugu. Bestalde, bi entrenatzaile gaude, Asier eta ni, eta, beraz, kirol arloa hamabi lagunek osatzen dugu orotara. Mai-

lari dagokionez, senior mailan gaude. Gipuzkoa osoan multzo bakarra dago eta berau zortzi taldek osatzen dugu.

Talde gisa, zer eskatzen diozue aurtengo denboraldiari?

Gure helburu bakarra kirola eginez ondo pasatzea da. Asteazken zehar entrenatu eta asteburuetan partidak jokatu ahal izateak gure helburua betetzen du. Hori bai, partidak irabazten badira askoz hobe izaten da, baina guretzat horren gainetik dago ondo pasatzea.

Hori horrela izanik taldeko giroa ona izango da, ezta?

Dudarik gabe. Taldean giro ona izatea garrantzitsua da. Jokalarien artean giro ona bada, gero kantxan gauzak hobeto ateratzen dira. Kalitatearen gainetik talde giroa dago.

Nola ikusten duzu nesken areto futbola gizonezkoenarekin alderatuta?

Joko aldetik baino, kopuru aldetik dago ezberdintasunik handiena. Esaterako, nesken multzo bakarra dago Gipuzkoan eta berau zortzi taldek osatzen dugu. Gizonezkoen artean, aldiz, 60 talde inguru egongo dira hainbat multzotan banatuta. Ildo beretik jarraituz, esan behar da laguntzak jasotzerako eta taldeak osatzerako orduan neskez osaturik dauden taldeek arazo gehiago izaten dituztela. Gizonezkoen talde batek jokalaririk behar baditu, deialdi bat egitearekin nahikoa du. Aldiz, gure kasuan, deialdia egin eta zain egon behar dugu beti ea inor etorriko ote den. Aurtengo denboraldiaren kasua da horren adibide garbia: federazioan izena emateko egun gutxi batzuk falta zirela lortu genuen taldea osatzea. Azken finean, zalanza edo ziurgabetasun egoera batean egon behar izaten da taldea osatuta ikusi bitartean. Behin osatzen bada,

denboraldiaz gozatzea besterik ez da geratzen.

Gauzak horrela, etorkizunari begira, zer asmo dituzue?

Hori une honetan ez dago esaterik. Lehen esan bezala, orain ezin dezakegu esan datorren denboraldian taldea osatzea lortuko ote dugun. Tamalez, nesken areto-futbolaren mundua lehen aipatutako ezegonkortasunarekin batera bizi da, baina gure gogoak aurrera jarraitzen lagunduko digu, eta Tinta taldeak beste hainbat urtetan dirauen mailan jarraituko duen itxaropena dugu.

Hegoalde da eskualdean goi mailan dugun ordezkarria. Beraien urratsei jarraitzen ahalgintzen al da Tinta?

Bi mundu ezberdinez hitz egitea bezala dela iruditzen zait. Hegoalderen mailako taldeek kirola beste modu batera hartzen dute. Guk, gure aldetik, ditugun baliabideekin moldatu behar izaten dugu. Mirestu beharrezko taldea da dudarik gabe, baina ez gara zaku berean sartzeko taldeak. Gauza batean gaude parean: ilusioan. ◀

Areto futbolaren harrobi bikaina da Villabona, eta horren adibide dira Tinta eta Transportes Lakuntza taldeak. Lehen neskek osatzen dute eta Mikel Elizegi da entrenatzailea. Bigarrena, aldiz, mutilez osaturiko taldea da eta Juan Tejeriaren aginduetara dihardute. Denboraldia pixkanaka badoala eta, bi talde hauen jardunari buruz zertxobait gehiago jakiteko asmoz, talde bakoitzeko entrenatzaileekin aritu da solasean HITZA. Goi-mailako taldeen jarduna mirestuz baina oinak lurtean mantenduz, gogor ari dira lanean bai Tinta-ko neskek eta baita Transportes Lakuntza-ko mutilak ere.

Tinta taldea duela zazpi urte sortutako proiektu baten emaitza da. Hasiera batean neska talde bat areto-futbolaren aritzeko gogoz joan zen gaur egun taldeko ordezkaririk diren Mikel Elizegi eta Asier Etxanizengana. Guztien artean hitz egin eta egitasmoa abian jarzea erabaki zuten. Horrela, lehen urtean taldearen oinarriak sendotu zituzten bai kirol aldetik eta baita ekonomia aldetik ere. Urte horretan taldea sendotuz joan zen eta hurrengo denboraldian ekin zioten federatu gisa jokatzeari. Horrela, hasieran neska talde baten proposamena zenak, urtebete-ko lanaren ondotik argia ikusi zuen.

Jada zazpi urte igaro dira harrizkeri eta gaur egun, senior mailan jokatzeko ari dira Tinta-koak. Orduko ilusio berarekin, asteazken zehar egindako entrenamendu saio zein astebukaretan jokatzeko dituzten partidak osatzen duten taldeak denboraldi hasiera txukun bat egin duela esan behar da; izan ere, sailkapenaren erdialdean kokaturik daude modu eroso batean eta nahiz eta beraien helburu behinena ondo pasatzea izan, aitoritu digute partidak irabazteak beste poztasun bat ematen duela.

Gizonezkoekin alderatuta dituzten zailtasunak ere azaldu dituzte Tintakoek, baina zailtasun guztien gainetik kirola egiteko gogoia dagoela gaineratu dute, eta beste urte mordo batean gustuko duten kirolean aritzeko gogoia dutela ere adierazi dute. Ea zortea dute eta zaleen animo eta indarrek lagundurik irauteaz gain, emaitza onak lortzen dituzten.

Nesken gogo eta ilusio berarekin dihardute Transportes Lakuntza taldeko mutilek ere. 12 jokalariditu bere aginduetara Juan Tejeria entrenatzaileak. Talde hau ere ez da atzo goizekoa, izan ere, 7. denboraldia baitute aurtengoa gustuko duten kirola egiten. Villabonako gazteak dira taldekide guztiak, eta, noski, Olaederra kiroldegian jokatzen dituzte etxeko partidak Tinta-ko nesken antzera.

Transportes Lakuntza taldekoak Lehen Maila delakoan ari dira jokatzen aurten. Orain arte Maila Autonomikoa deitu izan zaito maila horri, eta aurten etorri da izen aldaketa. Hori dela eta, batek baino gehiagok mailaz aldatu direla uste badu, oker dagoela jakingo du. Euren multzoan 16 talde daude eta guztiak Gipuzkoa mailakoak dira. Denboraldiaren lehen herena igarota, Lakuntzakoek ezin dute balantze oso positiborik egin. Izan ere, 10 partida jokatu dituzte 2005/2006 denboraldi honetan eta oraingoz 3 irabazi dituzte. Baina beste partidaren bat irabazten badute, sailkapenean gorakada nabarmena eman dezakete, eta horrekin gauzak aldatu daitezke denboraldiko helburu nagusia lortzeko bidean. Izan ere, Transportes Lakuntzakoek helburua sailkapenean lehen lau taldeen artean sartzea da, gero igoera fasea jokatu ahal izateko. Behin hor sartuta, mailaz igotzea izango da helburua.

Etorrizunari begira, jarraitzeko gogoz aurkitu du HITZA taldeko entrenatzailea. Jokalariak bilatzeko arazorik ez dela egongo adierazi du Tejeriak. Izan ere, mutilen areto futbolarekin beti egoten dira mutilak kirolean aritzeko gogoz, eta ez da zaila izaten taldea osatzea. Mutil asko zelai handiko futbolarekin aritu ostean, areto futbolarekin hasten direla ere jakinarazi zuen Transportes Lakuntzako entrenatzaileak.

Villabonako areto futbol harrobia oso landua dagoela argi geratu da. Bai Tintako nesken eta baita Transportes Lakuntzako mutilen partidek, areto futbol zaleen gosea asetzeko balio behar lukete; izan ere, bi talde hauetako jokalariek kalitate handia dute oinetan eta partida bakoitzean duten guztia ematen dutela konturatuko da edozein norgehiagoka ikustera Olaederra kiroldegira hurbiltzen denak. Beraz, badakizue, oraindik ez baduzue inoiz talde hauen partidarik ikusi, aprobetxatu eguraldi txar honetaz, eta gerturatu Olaederrara, babesean egonaz goi mailako areto futbolaz gozatzeko aukera izango baituzue bertan. Egun zior.

JUAN TEJERIA ▶ TRANSPORTES LAKUNTZA TALDEKO ENTRENATZAILEA

«Lehen lau taldeen artean sartzea da aurtengo xedea»

J. Goikoetxea ▶ Taldearen, eta, orokorrean, areto futbolaren inguruan hitz egin du Juan Tejeriak HITZAREKIN. Denboraldi hasieran gauzak ondo atera ez arren, buelta emango diotela-koan dago.

Nola doa oraingoz 2005/2006 denboraldia?

Momentuz gauzak ez zaizkigu nahi genukeen bezala atera. Oraingoz 9 jardunaldi jokatu dira, eta orain arte 2 partida bakarrik irabazi ditugu. Beste bi berdinketa lortu ditugu, eta, beraz, ezin da esan denboraldiari modu egokian ekin diogunik. Multzoan, guztira 16 talde gaude eta une honetan 15. lekuan aurkitzen gara. Baina partida bat irabazita asko igoko gara, izan ere, talde guztiak puntu gutxiren bueltan bildurik gaude. Beraz, laster zulotik ateratzea espero dut. Horrek konfiantza handia emango digu eta gora egingo dugu.

Zenbat kidez osaturiko taldea duzu aurten zure aginduetara, eta zein mailatan zaudete?

Hasi den denboraldi honetan 12 futbolari osaturiko taldea ixtea lortu dugu. Jokalari guztiak Villabonakoak dira eta denek ezagutzen dute elkar. Hori horrela izanik, taldean dugun giroa ederra da. Eta horrek derri gorrez horrela behar du izan; bestela jendeak areto futboleko jokatzeari utzi egingo lioke. Mailari dagokionean, aldi berean behar da aurten izen berria duen maila batean ari garela jokatzen. Lehen Maila Autonomikoa zenak aurten Lehen Maila izena hartu du eta Gipuzkoa mailako taldeen aurka jokatzen dugu.

Nahiz eta ez ondo hasi, zer helburu duzue aurtengo urteari begira?

Lehen esan bezala, ez gara ondo hasi, baina horrek ez

digu denboraldi hasieran jarri genuen helburua lortzea oztopatuko. Gure helburua sailkapenean lehen lau taldeen artean sartzea izango da, eta modu horretan txapeladuna erabakitzeko jokatu den nolabaiteko lauko final horretan egotea lortuko dugu. Lauko finala saskibaloian jokatzen denaren berdina da. Hau da, lehen-dabizi finalerdiak jokatzen dira. Lehenengoa laugarrenaren aurka eta bigarren hiru-garrenaren aurka; eta azkenik, bi partida horietako irabazleek finala jokatzen dute. Esan bezala, gure helburua hor egotea da.

Etorrizuna ziurtatuta al dauka talde honek?

Nik baietz uste dut. Jendea jarraitzeko gogoarekin dagoela iruditzen zait eta beste urte batzutarako taldea mantentzeko arazorik ez dela egongo espero dut. Izan ere, mutilen areto futbol talde batean jokalariek lortzea ez da lan zaila. Bete daude han edo hemen gazte ugari futboleko aritzeko gogoz eta aukera ikusten dutenean etortzen dira. Bestalde, aipatzeneko zelai handian aritzen diren gazte ugari ere gerora areto futboleko hasten direla.

Gure taldean badira hainbat kasu aurrez zelai handian jokatu eta harekin aspertzean, areto futboleko jokatzeari ekin dioten mutilenak. Beraz, taldeak beste hainbat urtez jarraituko duelakoan nago, eta nik ere, nire aldetik, gazteek gogoz diharduten bitartean, jarraitzeko asmoa dut.

Amaitze aldera, zer nolako egoeran aurkitzen da gaur egun areto futbola?

Kirola den aldetik osasun egoera onean dagoela esan behar da. Baina badira kezkatzeko arrazoiak ematen dituzten beste hainbat alderdi ere. Nire ustez larriena epaileen inguruko da. Guk badakigu gauden mailan egonda ez zaizkigula epaile profesionalak etorriko partidetara. Baina gutxieneko maila bat eskatzen diegu epaileei. Izan ere, etxean arbitrazten dituzten partida bakoitzean diru zehente kobratzen dute, eta, horregatik, serio-tasun minimo bat eskatzen diegu. Gu gure gogo guztiarekin joaten gara partidetara. Aretoko futbola gauza serio bat bezala hartzen dugu, eta partidetan epaileek ere kirola guk hartzen dugun bezala hartzea nahi dugu. Horixe eskatzen dugu. ◀



Transportes Lakuntza. Juan Telleriaren mutillak, partida baten aurretik, taldeko argazkia ateratzen. HITZA



AGENDA ▶

DEIALDIK

Asteasu. *Bide Eginez II.* Batzarra, 11:00etan, Kultur Etxean, Batasunak deituta.

Ibarra. San Bartolome parrokiako Misio taldeak Merkatu Txikia antolatuta du. India, Honduras eta Ekuadorra bidaliko da jasotako laguntza. Materiala parrokiako lokalean utz daiteke 17:00etatik 20:30era.

Leitza. Tim Burtonen *Nadie sabe* filma, bihar, 19:30ean, zinema aretoan.

Tolosa. Eskalada txapelketa 16:30ean Bonberenean eta Berri Txarrak taldearen kontzertua 22:30etan.

Tolosa. Txinako Guandong txobxongilo taldeak *Lignan-eko barilen magia* obra eskainiko du Beotibar pilotalekuan, gaur 20:00etan eta bihar 17:30ean eta 20:00etan.

Tolosa. Hilaren 18an Barakaldoko BECen izango den Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako sarrerak salgai daude HITZAREN egoitzan (Araba etorbidea, 5 atzea), 25 eurotan; bazkarikoak (18 eurotan) eta autobusekoak (12 eurotan) ere salgai daude.

Tolosaldea eta Leitzaldea. Gaur eta bihar EHNAren tramitazioa herri guztietan.

Villabona. Oinkari dantzari taldearen 30. urtemugaren baitan, taldean aritutako guztien bazkaria izango da hilaren 18an Asteasuko Sarasola sagardotegian. Ondoren, erromeria. Izen-ematea, 660 13 93 80 telefonoan edo Ikastolako ganbaran astearte eta ostegun arratsaldeetan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Azpiroz, M.L. Amaroz auzunea, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5 FM - 101.2 FM)
10:30-13:00. Hitzak hegan saioa: elkarrizketak, mundurako leihoa, gomendioak, porra... Gabonetako saski izugarria zozketatuko dute saio horretan hilaren 17an; lehiaketan parte hartuz gero aukera gehiago saskia eskuratzeko.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Urik ez alferrik galtzeko

ANOETA ▶ Uraren Autobusa herrian egongo da etzi, 09:00etatik 13:00etara Ikastolan eta 16:00etatik 20:00etara plazan, Kutxako Gizarte Ekintzari esker



Anoetako Ikastolan —goizez, 09:00etatik 13:00etara— eta plazan —arratsaldez, 16:00etatik 20:00etara— izango da autobusa etzi. J. SAIZAR

IRATXE ETXEBESTE

Alferrik galtzen ez den ura omen da onena. Izan ere, ura, eguneroko bizitzan laguntzen gaituen ur hori, ondasun eskasa da munduan. Eta hori jakin arren, sarri askotan gehiegikeriaz erabiltzen du jendeak, «konturatu gabe benetan erabilpen neurtua eman behar diogula», adierazi dute Kutxako Gizarte Ekintzako arduradunek.

Erakunde hori herriz herri dabil egunotan uraren erabil-

garritasunari buruz jendeari azalpenak ematen, eta astelehenean eskualdean izango da berriro: Anoetan, hain zuzen.

«Urari erabilpen neurtua eman behar diogula ohartarazteko ekarriko dugu gure herri Uraren Autobusa», esan dute udal ordezkariak: «Gure etxeetan ura erabiltzen duguneko esparru guztiak aurkitzen dira autobusean, eta ura modu jasangarri batez erabiltzeko ideiak proposatzen dira bertan».

Uraren Autobusean batetik

bestera dabilzan arduradunek «herritarren partehartzea» bideratzen dute ura modu jasangarriaren erabili behar dela helarazteko. «Elkarreragin zuzena eskaintzen dugu baita ere, haurrek, gazteek eta helduek modu praktikoan ikusi ahal dutelako horrela urarekin nola jokatu behar den», diote Uraren Autobuseko ordezkariak: «Gutariko bakoitzak bizitarako ezinbestekoa dugun baliabide hau zain dezakegularako oso modu errazean, itxuraz esanahirik gabeko-

ak, baina, funtsean, oso eragin korrak diren keinu txikiak bidez, hain zuzen ere».

Anoetan etzi egun osoan

Etzi, beraz, Anoetan izango da Uraren Autobusa egun osoan: zehazki, 09:00etatik 13:00etara Ikastolan eta 16:00etatik 20:00etara herriko plazan. Eki-menaren sustatzaileek dei egin diete herritar guztiei bertara joan daitezen. Ikasi beharrekokoak zuzen-zuzenean ikasteko, batez ere.

AGURRAK ▶



ZORIONAK

Edurne eta Joxean.

Zorionak zuen ezkontza egunean. Familiaren partetik.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaltzeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!